

# Enkarterrietako ALTXORRAREN X BILA

## INGURUNE NATURALA FASEA

### 4. astea

Dakigunez burdin minerala landuz altzairua lortu dezakegu eta altzairuarekin gauza interesgarri asko egin ditzakegu: aintzinean armak, nekazaritza-tresnak eta eguneroko hainbat tresna egiten zituzten.



### Ibilbide gidatua

☠ 1. Trenak erabiltzen ziren minerala barruko zonaldeetatik itsasoraino garraiatzeko. Denbora pasa eta gero, trenbide horiek berreskuratua izan dira naturaz gozatzeko asmoz eta baloratzeko ere bai. Asmatu berreskuratutako trenbide horien izena.

- Trenbide ekologikoak
- Iraunkortasunerako ibilbideak
- Bide berdeak

☠ 2. Urarri buruz hitz egingo dugu berriro. Lehenengo industriak errekurtsu berriztagarri honen inguruan ezarri ziren, bere indar bukaezina aprobetxatuz. Ba al dakizu zer egiten zuten erabilitako urarekin?

- Etxerako erabili
- Lurrindu
- ubidera bueltatu

☠ 3. Elkar ezagutzen ari gara. Dagoeneko zeintzuk diren gure basoetako haritzak eta pagoak laguntzen dituzten zuhaitzak eta zuaixkak jakingo duzu. Adi, eta fauna eta flora unitate didaktikoaren sarreran agertzen den argazkiari begira ezazu. Zer zuhaitz mota da?

- urkia
- Ametza
- Eukaliptua



**burdinmendi**  
Enkarterri-Ezkerraldea  
naturgune didaktikoa

# Enkarterrietako ALTXORRAREN X BILA

☠ 4. Burdinolek ikatzaren beharra zuten. Erregai hori bertoko basoak erretzen lortzen zuten. Nolakoa zen hondatutako basoa?

- Arteak, haritzak eta pinuak osaturiko basoa
- Gaztainondoak, gereziondoak eta pagoak osaturiko basoa.
- Haritzak, gaztainondoak eta pagoak osaturiko basoa

☠ 5. Natura telebista kateko dokumentalak ikusteko ohitura duzula argi badakigu. Bertan kontinente guztietako natura agertzen da. Baina jakingo al zenuke hauen artean zeintzuk diren gure eskualdeko etxabere bereziak?

- Enkarterriko astoa, behi montxina eta Villanoa
- Enkarterriko astoa, behi frisona eta azkonarra
- Saia, satitsua eta hudoa

☠ 6. Bertoko beste zuhaitzekin batera Enkarterriko haritzak oso garrantzitsuak izan ziren meatzaritzarako, nekazaritzarako, arrantzarako e.a. baina... ba al zenekien haritzaren azala medikuntzan erabiltzen zela? Asmatuko al zenuke zer sendatzen zuten azala horren infusioarekin?

- Ospelak sendatzen zituzten
- Bizkarreko mina sendatzeko
- Hileroko mina lasaitzeko

Lehen Hezkuntza: 4., 5. eta 6. maila

[www.burdinmendi.org](http://www.burdinmendi.org)



**burdinmendi**  
Enkarterri-Ezkerraldea  
naturgune didaktikoa

**Enkarterrietako  
ALTOKKAREN  
X BILA**

Proba praktikoa: Jeroqlifikoa

*Aintzinako lantegia .....*



*Lehen Hezkuntza: 4., 5. eta 6. maila*

[www.burdinmendi.org](http://www.burdinmendi.org)